

Jasone Osororen artikulua bat irakurriko duzu.

1. egitekoa:

Irakurri testua eta ondorengo galderei erantzun. Testuan esaten dena kontuan izan, eta aukeratu erantzun zuzena.

Idatzi **letra** beheko laukietan.

Zintzotasuna



Gente - 07.10.10 -
JASONE OSORO

Bertute bat? Ba... zintzo jokatzeko gustatzen zaidala. Bestela esanda, beti esatea pentsatzen dena, esandakoa onerako edo txarrerako izan daitekeen baloratu gabe.

Hara, jende askori entzun izan dion beren bertute bat dela zintzotasuna. Kontuz, zintzo jokatzeko ez zintzoa izatea, ez baitira gauza bera. Komenigarria al da beti zintzo jokatzeko? Benetan eskertzen al da beti pentsatzen dena esatea?

Adiskide bat negarrez etortzen zaigunean bikotearekin utzi duela kontatuz, «ondo egin duzu, adarrak behin eta berriz jarri dizkizu» esan behar al zaio? Txakurkumea erosi berri duenari «zuk **hutsune** afektibo handia duzu eta txakur batek ez dizu hori estaliko» esan behar al zaio? Zintzo jokatzeko zilegi al da beti? Ja eta ja!

Kontua da gaur egun gainbaloratua dagoela zintzo jokatzeko kontua. Nire gurasoek jaso zuten heziketa katolikoaren arabera, pertsonak zintzoak izan behar ziren eta, horretarako, askotan nobe zuten isilik egon.

Gaur egun, aldiz, «egia» esatea da gehien baloratzen dena, nahiz eta jakin egia horrek askotan min egingo diola zure aldamenekoari.

Bada, zer nahi duzue esatea. Nik, aukeran, nahiago ditut tarteka gezur txikiak etengabeko egia absolutuak baino. Nahiago dut nire bikoteak zeinen eder nagoen esatea loditu egin naizela entzutea baino.

Niretzat onena zer den kalkulatu jokatzeko duen jendea da atsegin dudana, eta ez beraien kontzientzia garbi eta lasai mantentzeagatik beti pentsatzen dutena esaten duten beste hori.

Lagunok, familia, ile-apaindegira joatekotan naiz. Faborez, sarraskiren bat egiten badidate ere, polita utzi nautela esan. Abisatuta zaudete.

Zein da egilearen iritzia?

1.

- Beti egia esatea bertute bat da, hori baita zintzo jokatzeari.
- Hori gaur eguneko kontua da. Ezinbestean egia esatea ez da beti bertute izan. Gure gurasoen garaian beste balio batzuk zeuden.
- Norberak erabaki behar du beti egia esatea bertutea den. Bertutea ez baita absolutua.

2.

- Idazleak nahiago du beti egia esan, eta horrela kontzientzia garbi eduki. Bestela ezin da lasai bizi.
- Nahiz eta berak beti egia esaten duen, ulertzen du beste batzuek horrela ez jokatzeari. Aukera guztiak errespetatu behar dira.
- Hobe da tarteka gezurrak esatea, horrekin bizitza eramangarriagoa egiten badugu.

2. egitekoa

Testuan **hitza** aurkitu.

Ondoren **3** azalpen irakurriko dituzu. Azalpenari dagokion **hitza** testuan aurkitu behar duzu.

Idatzi hitza laukian, adibidean egiten den bezala.

Adibidea:

0. (3. paragrafoan)

Tarte hutsa.

Hutsune(a)

1. (3. paragrafoan)

Legezkoa dena, eragotzita ez dagoena.

2. (6. paragrafoan)

Aldika, noizean behin.

3. (8. paragrafoan)

Txikizio, astakeria, basakeria.